

illunberik; aiñ zirudien ta zan argia, nola dan egunik argiena. Argatik eroze ñek, San Agustiñ-ek gabak ikustearaz ta irakurteaz, esan dezake Dabid-ek kanta baten erdian dion ura. «*Nox illuminatio mea in delictis meis.*<sup>1</sup> ¡Au gaba argi! ¡Au gaba gozo! ¡Ez nik iñoren egunetan! San Agustiñ-en arratsetan bai ditudala nik nere atseginak eta poz-aldiak! «*Quia tenebrosa non obscurabuntur a te.*<sup>2</sup> Argatik eze, dituen argierak illunduko ez diraden iñoz; «*Et nox, sicut dies illuminabibit.*» Zergatik eze, aren gaba, egun bat adiña, argituko dan: *Sicut tenebrosa ejus ita et lumen ejus.*<sup>3</sup> Zergatik eze, nola dan aren illuna, alásse izango ere aren argia. Arratsetan, ots-garbi da-nean, ikusten ditugu izarrak, eta ala-ere gaba da, ta illunbean gau-de; baña ez da orrelakorik San Agustiñ-en gabetan, utseginetan, zeresanetan: bada beti dago otsgarbi: beti ageri dira izarrak; are geiago; agiri dira eguzkiak; are geiago; agiri da, eguzkia ta izarrak-baño argi bat andiagoa; egiten diguna egun-bat, eguzkia bero erpiñ-erpiñean dijoanean baño argiago eta ederrago. Ez dezute oraiñ esango San Agustiñ-en argia illundu dala, odeitu dala, itzaldu dala. Beraz, izandu da argi-utsa eta mundu onen lendabiziko argia bezela. «*Vos estis lux mundi. Fiat lux et facta est lux.*»

(Aurrandetuko da.)

## FIESTAS DE LA CORONACION DE NUESTRA SEÑORA DE ARANZAZU

Segun nos participa, en nombre de la Junta organizadora de las mismás, el Sr. Secretario Fr. Vicente Suarez, se suspende, por ahora, en atencion á las tristes circunstancias por que atraviesa la salud pública, la Coronacion de la Santa Imágen de Nuestra Señora de Aranzazu, quedando aplazadas, en su consecuencia, las fiestas anunciadas. (Véase pág. 60.)

---

(1) Psal. 138, 11.—(2) Ps. 138, 12.—(3) Ibidem,